

## **PIRLS nazioarteko azterketa (Lehen Hezkuntzako 4. maila).**

### **PIRLS azterketak**

Euskadik, Espainiako laginaren barruan, 2016n batera egingo diren IEAren (*Hezkuntza Errendimendua Ebaluatzeko Nazioarteko Elkartearen*) nazioarteko ebaluazioan hartuko du parte. Ebaluazio honetan *Irakurmenaren bilakaerari buruzko nazioarteko azterketa* (PIRLS) aztertuko da. Hori esker, duela urte batzuetatik, 50 herrialde baino gehiagotan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen errendimendua aztertzen da oinarrizko konpetentzia: **irakurmena**. Azterketak hezkuntza-sistemen arteko aldeak aztertzeko eta alderatzeko diseinatuak izan da, herrialde bakoitzeko testuinguru soziokulturaleko eta hezkuntzaren testuinguruko ikasleen errendimenduen analisitik abiatuta, eta horrela, herrialde guztietako irakaskuntzetan eta ikaskuntzetan hobetzen laguntzeko.

### **Proben eta testuinguruko galdetegiaren koadernotxoak**

Proben **koadernotxo**a dago, PIRLS probarena, eta bakoitzak bi atal ditu. PIRLS proban, atal bakoitza 700 hitz inguruko testuaz eta ikaslearen ulermena ebaluatzea xede duten 12-15 galderez osatuta dago. PIRLS proban, atal bakoitzak 50 minutuko lana eskatuko die ikasleei; horregatik, bien artean atsedenaldea egitea gomendatzen da. Horri probako lehen egunean galdetegiako 30 minutu inguru gehitu behar zaizkio. Guztira, lehen proba egunean gehienez 2 ordu eta 40 minutu beharko dira.

Azterketa **testuinguruko galdetegiaren lau eredurekin** osatzen da: ikasleentzat, familientzat, irakasleentzat eta ikastetxearentzat. Galdetegiaren galderak ebaluatutako errendimenduak baldintzatu ditzaketen familia eta ikastetxeko testuinguruan adierazgarriak diren alderdiak kontuan hartzeko diseinatu dira. Hori horrela, ikasleei familia eta ikastetxeko ingurune horiei eta irakurmena, matematika eta zientzien ikaskuntzako esperientziari buruz galdetuko zaie. Irakasleei hauei buruz galdetuko zaie: irakaskuntzarako prestakuntza, esperientzia, gaitasun horien irakaskuntzan erabiltzen dituzten baliabideak eta metodoak eta abar. Ikastetxeko galdetegia zuzendariak edo zuzendaritza taldeko beste kideren batek erantzun du eta ikastetxearen ezaugarriak, baliabideak, hezkuntza-giroari, gurasoekiko harremanari eta abarri buruz galdetuko du. Horrez gain, lehen mailako irakurmenaren irakaskuntzari buruzko galderak jasoko ditu eta agian komenigarria litzateke ikastetxeko irakurmen-programaz (baldin badago) arduratzen den irakasleak erantzutea.

Azkenik, familiaren galdetegia (*Irakurmenaren ikaskuntzari buruzko galdetegia* delakoa) proba egingo duten ikasleen gurasoek edo lege-tutoreek erantzun behar dute eta ikasleek testuinguru soziokulturalari eta familia barruko ikaskuntza-esperientziei buruz emandako informazioa osatuko dute.

## **Datuen trataera konfidentziala**

Nabarmendu beharra dago konfidentziasuna bermatzeko, bai probak, bai galdetegiak, erabateko anonimatuan egingo direla; horrela, ikasleen eta irakasleen izenak eta datu pertsonalak ez dira ikastetxetik aterako. Bestalde, lagin adierazgarri buruz egindako azterketei dagokien moduan, PIRLS azterketan lortutako emaitzen txostenek eta argitalpenek ez dute ikasleei, irakasleei eta ikastetxeei buruzko datu zehatzik eskainiko. Argitalpenetan agertuko diren datu guztiek lagin adierazgarrian parte hartutako Espainia osoko eta komunitate autonomoetako gehitutako datuei egingo diete erreferentzia.

## **Testuinguru teorikoa eta PIRLS probetako galderen adibideak**

Ikastetxe parte-hartzaileei eta, batik bat, irakasleei azterketa horien berri hobeto emateko, ikusi eta kontsulta Ebaluazioko Institutuaren argitalpen hau:

- *Irakurmena. Lehen Hezkuntzako 4. maila. Irakurmenaren ebaluazio-probak. PIRLS 2001, 2006 eta 2011.*

Argitalpen honen proban erabilitako galderen adibide ugari jasotzen dituzte eta, gainera, horiei buruzko datu oso interesgarriak ematen dituzte. Galdera bakoitzarekin doaz zuzentzeko irizpideak, zailtasun maila eta asmatutako batez bestekoaren ehunekoak (nazioartekoak eta PIRLS probaren kasuan, batzuetan Espainiakoak ere).

Proben adibide horiek oso interesgarriak izango dira irakasleentzat, PIRLS probetako zenbait galdera “zuzenean”, ikasleekin praktikatuz, ezagutzeko aukera izango baitute eta ikasleen irakurmenaren gaitasun mailaren balioespena egin ahal izango baitute, Espainiako eta parte hartzen duten gainerako herrialdeetako batez besteko emaitzekin alderatuta. Horrez gain, *Irakurmenari* buruzko liburuaren kasuan, irakurleak PIRLS azterketaren oinarri teorikoari eta ebaluazio-metodologiari buruzko aurkezpen-kapitulua topatuko du.

PIRLS azterketetan gehiago sakondu nahi izanez gero, Hezkuntza Ministerioko Ebaluazioko Institutuaren web orrialdera joan (<http://www.institutodeevaluacion.mec.es>). Bertan, PIRLS (2006 eta 2011) probetako testuinguru teorikoak deskarga daitezke Pdf formatuan, baita 2011ko PIRLS probaren Espainiako txostena ere, Espainiak azterketan parte hartu zuenean lortutako emaitzen konparaziozko analisiarekin.

Horrez gain, ISEI-IVEIren web orrialdean (<http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/web/guest/pirls>) ebaluaqzio honi buruzko testuak argitaratu dira.